David izatea aukeratu genuen, denek Goliath izan nahi zuten garaian. Gure bidea ez genuen erraza zelako aukeratu, baizik eta berezia zelako eta harro sentiarazten gintuelako (Haritz zaharraren enborrak), eta horrela jarraitu behar dugu. Lezamatik XXI. mendeko mundura zabalik, gure errealitate soziologikora, konplexurik gabe, epe motzari liluratu gaitzan utzi gabe, beldurrik gabe, eta **talentua taldera ekartzeko eta prestatzeko ahalegina areagotuz**. Athleticen kide izateak dakarren taldekotasuna indartuz, gero eta indibidualistagoa den gizartearen batean bizi garen arren. **Zergatik ez klausularik gabe?**

## Lezama eta, berriro ere, Lezama. Goi-errendimendua

**Lezama da aktibo nagusia** geure esku baino egon ez dadin hainbesteko miresmena sortzen duen gure kirol-filosofia.

Hango instalazioen modernizazioa ia amaituta dago, eta, ondoren, **funtzionamendu-egitura trinkoa eta indartsua ezarri behar da, metodologia onenak, goi-mailako prestatzaileak eta goren mailako aurrerapen teknologikoak biltzen** dituen diziplina guztietan; horrela bermatuko dira Athletic Clubeko eta hitzartutako klubetako jokalarien goi-errendimendua, etengabeko prestakuntza eta jarraipen pertsonalizatua.

**Lezama Bizkaira eta Bizkaiko taldeetara irekita** behar du, hori baita haren ingurune naturala; eta Euskal Herriko gainerako lurraldeetara ere bai (geure erredua erreferente gisa sendotzeko munduko onenen artean).

## LEZAMA ETA HARROBIA

Lezama da Athleticen bihotza, baina gure bihotzak etengabeko kritika bidegabeak jaso ditu, ezjakintasunean oinarrituak sarritan. Zazpi urteko lanaren eta 20 milioi baino gehiagoko inbertsioaren ondoren, 2018ko Lezama eta 2011koak ez dute zerikusirik, edo ia batere ez.

Azpiegituren hobekuntzarekin batera, giza kapitalaren errendimenduaren optimizazioa gauzatu da. Datuek bermatzen dute gure apustua. Azken hamarkadan futbolari gehiago eta hobeak atera dira gure lehen taldeetarako (maskulinoa nahiz femeninoa). Hala ere, ez da nahikoa, eta etengabeko berrikuntzaren eta hobekuntzaren bila gabiltza.

Lezamarik gabe, Athletic ez litzateke gaur egun ezagutzen dugun bezalakoa izango.

## BERRIKUNTZA FILOSOFIA GISA

Munduaren bilakaeraren abiada inoiz ez bezalakoa da, baita futbolaren munduan ere. Eta Athletic ezin da atzean geratu lehia horretan. Teknologia berriak direla-eta, aldatzen ari dira hala harrobiaren garapena kudeatzeko eta ulertzeko modua, nola eliteko taldeen lana.

Urteak daramatzagu arduraz gogor lan egiten, alor horretan ere abangoardian egoteko gure ahalmena garatzeko ahaleginetan. Baditugu dagoeneko Athletic Clubeko etorkizuneko Data Analytics sail berriaren lehen nagusiak eta hartarako beharko dugun teknologia gehiena.

XXI. mendeko Athletic hemen dago.

## LAN-ARLOAK ETA PROPOSAMENAK

- **Kirol-arloko lan-egitura berrantolatzea eta egokitzea, honako egitura honetara bideratzeko:**
  - **Kirol-zuzendari nagusia.** Lehen talde maskulinoaren eta femeninoaren arduradun gorena izango da; gainera, kontratazioen nahiz Zuzendaritza Batzordearekiko eta haren Zuzendaritza Nagusiarekiko harreman zuzenen ardura ere izango du.
  - **Oinarri-futboleko zuzendaria.** Kirol-arloko beste pertsona batek izango du ardura hau. Kirol-zuzendari nagusiari emango dio bere lanaren berri, eta jarduketa-eremutzat oinarri-futbolari buruzko prozesu eta baliabide guztiak izango ditu, Lezamakoak zein Lezamatik kanpokoak.
  - **Antolamendua.**
    - **Metodologia-saila:**
      - Lan-ildo uniforme eta koordinatua izango du.
      - Lan indibidualizatura bideratuta egongo da. Jokalari bakoitzak bere prestakuntza-beharrak ditu, eta behar horien arabera lagundu behar zaio.
    - **Jokalarien scouting-erako eta azterketarako saila:**
      - Hiru arduradun ditu sail honek, bat ziklo bakoitzeko: benjaminak/alebinak, haurrak/kadeteak, gazteak/seniorrak.
      - Adin goiztiarretan talentua identifikatzen munduko erreferente izatera bideratutako lana da, analisi teknikoetan eta datu-eredutan oinarritutako azterketak batuz. Lezaman, Bizkaian eta hitzartutako taldeetan lan egitera bideratua dago.
    - **Jokalariak taldera ekartzeko saila:**
      - Hiru arduradun ditu sail honek, bat ziklo bakoitzeko: benjaminak/alebinak, haurrak/kadeteak, gazteak/seniorrak.
      - Adin goiztiarretan talentua identifikatzen munduko erreferente izatera bideratutako lana da, analisi teknikoetan eta datu-eredutan oinarritutako azterketak batuz. Lezaman, Bizkaian eta hitzartutako taldeetan lan egitera bideratua dago.

- **Hitzartutako taldeen eta kanpoko prestakuntzaren saila:**
  - Zerbitzuak emango ditu alor hauetan: prestakuntza, hitzartutako taldeetako jokalarien garapenean, kontratuen gorabeherekin zerikusia duenean, taldeentzako materialetan...
  - Lezama Bizkaiko futbolaren eta hitzartutako taldeen erreferentzia- eta lotura-gune gisa. Partekatutako lanerako eta ikaskuntzarako espazioa.
- **Jokalariaren eta haren familia-inguru gertukoaren arretarako saila:**
  - Etxebizitza lortzeko, egoitzan ostatu hartzeko... laguntza.
  - Harremana ikastetxeekin eta gainerako prestakuntza-zentroekin.
  - Ikasketetarako laguntza pedagogikoa eta orientazio- eta tutoretza-laguntza.
  - Integrazioarako laguntza.
- **Psikologia-saila:**
  - Psikologiako sailaren egitura definitzea eta garatzea.
  - Funtzioak: eskatzen duenari laguntza psikologikoa ematea, taldeei berriazko laguntza ematea, familien eta guraso-eskolen arreta, langile teknikoei etengabeko prestakuntza ematea, talde teknikoak gainbegiratzea, etab...
- **DataAnalytics-eko ASK (Athletic Science Knowledge) saila:** Sail berri honen helburua Athletic berrikuntzaren eragile egitea da, eta horren oinarrian iraunkortasunaren ideia egotea, etengabe aldatzen den eta bideragarria den etorkizuna eraikitzeko.
  - Gogoeta estrategikorako talde bat sortzea, eta gogoeta horretan berrikuntzak ikaskuntza esanguratsua, globalizatua, berriazkoa, pertsonalizatua eta aktiboa ahalbidetzea.
  - Berrikuntzarako espazioa, diziplinez harago.
  - Datuen azterketarekin zuzenean lotutako goren mailako 4 espezialista (master/doktoretza), gehienez, lanean jartzea.
  - Goi-mailako espezializazioarekin batera, aniztasuna ezartzea berrikuntza-sistema on baten printzipio gisa.
  - Harreman proaktiboa eta berriazko lankidetzak l+Gko mundu-mailako liderrekin (Liverpool, FC Barcelona, Red Bull) eta gure ingurukoekin (CIC Bizkaia Innovation Hub).
  - Ikerketarako eta ezagutza sortzeko sail bereizgarria, beste taldeetako ez bezalakoa; ezagutza horrek abantailak eman behar dizkigu hala "amaierako produktuari" dagokionez, nola jokalariaren prestakuntzari dagokionez, bai eta talentua zazpi herrialdeetan erakartzeari dagokionez ere.
  - Lezamako gainerako sailen osagarri izango den zeharkako saila, baina epe ertain eta luzeko ikuspegi handiagoa izango duena; Kirol Zuzendaritzaren mende egongo da zuzenean.
  - Kontrol-sistema digitala zabaltzea eta prestakuntza-jarduerak hobetzea; IT eta datuen azterketa berezkoa eta esklusiboa garatzea.
- **Administrazio-saila:** Honako zeregin hauek izango ditu: azpiegituren eremuarekin (klubeko azpiegituren arduradunaren mende), komunikazioaren eremuarekin (klubeko

komunikazio-arduradunaren mende), eta pertsonen eta kontratuen kudeaketaren eremuarekin (lege-arduradunaren eta finantza-sailaren mende) lotutakoak.

- **Medikuntza-saila:**
  - Berrikuntza, honako hauetara bideratutako kudeaketa eta datu-azterketa: lesioen eta lesioak saihesteko aukeren kudeaketa (1) eta Biogranding irizpideak sartzea (2).
  - Kanpoko proiektuari atxikitako zerbitzu medikoaren sei unitateen optimizazioa.
- **Prestakuntza fisikoaren saila:** Lan indibidualizatura bideratutako lana, indarraren, erresistentziaren, abiaduraren eta abarren garapenari dagokionez.
- **Emakumeen futbolari berriazko laguntza metodologikoa emateko saila:**
  - Jokalariak taldera ekartzeko zerbitzua.
  - Talentua garatzeko berriazko metodologiak diseinatzeko zerbitzua.

## Emakumeen futbolaren aldeko gure apustua

Urrats sendoak eta atzerabiderik gabeak. Indartu baino ez da egingo Athletic Clubek emakumeen futbolaren alde egindako apustua. Ezinbestekoa da bi norabidetan aurrera egitea: esparru guztietan (kirolari lotua, ekonomikoa, medikoa, etab.) **jokalariak profesionalizatzeko egindako urratsak sendotzea eta emakumeen futbolaren egitura hedatzea.**

## EMAKUMEEN FUTBOLA

Athletic Club emakumeen futbolearen ere aitzindaria da. 2002. urtean hartu zuen parte lehen Superligan; harrezkero, gure taldea etengabe hasi da, azken zazpi urteetan, batez ere. Izan ere, emakumeen futbolearen egindako inbertsioaren % 70 azken zazpi urte horietan gauzatu da. Lehen taldeko jokalariak profesionalizatzeko eta harrobia garatzeko urrats erabakigarriak egin ditugu, horien baldintzak gizonetzkoen taldeek dituzten baldintzetatik gero eta gertuago egon daitez, berdintasuna lortu arte.

Athletic Cluben lidertzari esker, biderkatu egin dira emakumeen futbol-taldeen lizentziak Bizkaiko lurralde osoan, eta oso harro gaude horretaz. Emakumeen eta gizonetzkoen arteko berdintasunari egiten diogun ekarpena da.

## PROPOSATZEN DITUGUN LAN-ARLOAK

- Babes instituzionala ematea Estatuko emakumeen futbolaren kolektiboaren eskariei erantzuten dien lan-hitzarmen kolektibo bidezkoa zehazteari eta onartzeari. Gure jokalariek dagoeneko dituzten baldintza onuragarriei negoziazio horretan eustea.

- Lehen taldearen hazkundearekiko eta etengabeko garapenarekiko konpromisoa.
- Emakumeen futbolaren egiturari atxikitako talde teknikoa sendotzea.
- Lehen taldearen partida garrantzitsuak San Mamesen jokatzeko.
- Nazioarteko esperientziari bultzada handiagoa ematea (nazioarteko torneoetan parte hartzea, etab.), prestakuntza eta lehiakortasuna hobetzeko.
- Emakumeen oinarri-futbolaren hazkundearekiko eta garapenarekiko konpromisoa.
  - Hitzartutako taldeei lan-metodologietan eta prestakuntzan laguntzea.
  - Emakumeen futbolaren egitura handitzea, kategoriatan eta talde-kopuruan. Administrazio publikoak eta eskumena duten entitateak erakartzea, talentua hobeto identifikatzeko.
  - Athletic Clubi atxikitako hitzartutako taldeen kopurua handitzea.
- Emakumeen futbolari ikusgarritasuna emateko Athletic Clubek duen berariazko konpromisoari eustea, dagokion komunikazio-planean adierazten den bezala.
- Emakumeen futbolaren merkataritza- eta marketin-plan bat garatzea, unitate errentagarria eta iraunkorra bihurtu dadin ikuspegi ekonomikotik.
- Emakumeen kirolak (futbolak bereziki) tokiko, probintziako eta Euskal Herriko ekimenetan protagonismo handiagoa izateko parte-hartze aktiboa izatea.

### Muskulu finantzarioa duen talde bat

Badakigu **gure taldeak osasun ekonomiko bikaina duela**. Kontuen egoerak baikor izatera garamatza (134 milioi euroko ondare garbi positiboa eta 76 milioi euroko hornidura), baina, aldi berean, **orain arte erabili ditugun lan egiteko zorrotasuna eta kudeatzeko modua sendotzera** ere bai; izan ere, beharrezkoa balitz, ikus-entzunezko eskubideen edozein motatako murrizketari edo aurrekontuetan eragina izan dezakeen bestelako gorabehereri aurre egiteko prest egon nahi genuke, bai eta taldea munduko futbolaren erronka berrietara molda dadin inbertitzeko ere.

### ARLO EKONOMIKOA

Gure kaudimen ekonomikoak fidagarritasun osoa du. Azken zazpi urte hauetan ez ditugu kuotak igo eta, hala ere, San Mames ordaintzeko eta Lezama sakon eraldatzeko gai izan gara; hori gutxi ez, eta superabitari eutsi diogu, gure kudeaketari esker.

1990eko Kirolaren Legea ez zuen Athletic Clubek egin, baina betetzera behartuta dago. Guk abala aurkeztu genuen klubaren zuzendaritza geureganatu genuen egunean. Gure kudeaketaren

fidagarritasuna onura ekonomiko bihurtu da, eta horrek orain ardura horretatik aske uzten gaitu, maniobrarako aukera handiak emateaz gain.

Guk tituluak eskuratzearekin egiten dugu amets. Gainerakoan, nahiago dugu oso esna egon.

### PROPOSATZEN DITUGUN LAN-ARLOAK

- Kontu-ikuskarien salbuespenik ez duten kontuak aurkeztea.
- Zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen bazkietzan aldi baterako bajak hartzeko aukera proposatzen dugu. Gutxienez 2 urterako izango lirakeke, eta urte horietan dagokion kuotaren % 10 baino ez lukete ordainduko. Bazkide horiek ezingo lirakeke partidetara joan, baina gainerako eskubideei eutsiko liekete. Eserlekua klubaren esku geratuko litzateke. Aldi baterako baja amaitu orduko, eserlekuaren erreserba bermatuta izango lukete.
- San Mamesera eta Lezama joatearekin lotzea klubeko denda ofizialetako prezioak eta hurrengo urteko bazkide-kuotarenak jaitea.
- Konpromisarioen Biltzarrari klubaren egunetako zenbatekoak urteko kuotan sar ditzan onartzeko proposatzea, bereizita erosiz gero baino prezio merkeagoan.
- Sarrerako kuota eta urteko kuota zatikatuta ordaintzeko formulak martxan jartzea.
- 2020an kuotak izoztea.
- Gure bazkideentzat onuragarriak izango diren merkataritza-akordioak egitea hirugarrenekin.
- Gertuko administrazioek eta LaLiga sustatutako merkataritza-espazioetan parte hartzea.
- E-sports-etan parte hartzea komeni den aztertzea.

## Bazkideentzako zerbitzuak, partaidetza eta erlazio- eta komunikazio-mekanismoak

### GIZARTE-ARLOA

Athletic bere bazkideen kluba da. Horrela izatea nahi dugu eta, horregatik, lotura hori indartzen duten estrategiak proposatzen ditugu, garai hauek mehatxagarriak baitira gurea bezalako proiektu berezientzat. Bazkideak erabaki garrantzitsuetan parte har dezan eta, horrela, klubaren parte senti dadin lan egiten dugu; eta horretarako ezinbestekoa da hark informazio xehatua izatea. Tresna informatikoak garatzen ari gara, bazkideak informazioa eskuragarri izan dezan eta klubarekin egin beharreko gestioak erraztu dakizkion.

Gure lehen bi taldeen eta Bilbao Athleticen partidetara bazkideak joatea saritzen duten formulak lantzen ari gara. Uste dugu animazioa hobetzeko abiapuntua harmailak beteta egotea dela.

### PROPOSATUTAKO LAR-ARLOAK: ARRETA, ZERBITZUA ETA KOMUNIKAZIOA BAZKIDEEI ETA ZALE GUZTIEI

#### BAZKIDEENTZAKO ZERBITZUA

- Bazkidearen arretarako bulego berriak, harreman pertsonalagoa eskaintzeko espazio hobeekin.
  - Ibaiganeke espazio fisikoa.
  - San Mameseko espazio fisikoa.
  - Arreta-kanalak dibertsifikatzea eta optimizatzea, beharizan pertsonaletara hobeto egokitzeko: arreta zuzena bulegoetan partida dagoen eta ez dagoen egunetan, telefono eta Whatsapp bidezko arreta, webgune eta aplikazio bidezko arreta telematikoa, etab.
- Bazkideentzako berariazko App bat hobeto garatzea, klubarekiko izapide garrantzitsuenak egiteko aukera eman dezan.
- Txartel birtuala garatzea, hura beste norbaiti uzteko aukera errazteko.
- Bazkideen bizitzan, haiek klubarekin duten harremanean, Athleticen benetako presentzia izatea: hospitality aplikatzea pertsona horiei bazkide gisa harrera egitean, adin nagusiko egiten direnean, bazkide gisa lehen urtea betetzen dutenean, klubeko kide izateari uzten diotenean, hiltzen direnean...
- Informazioa eta entzute aktiboa. Aldian behingo bilerak eta solasaldiak bazkideekin eta konpromisarioekin, klubaren bilakaerari eta egoerari buruz.
- Klubaren ordezkariaren figura ezartzea desplazamendu guztietan, bazkideen eta klubeko lagunarteetako kideen arazoei erantzuteko.

- Desplazamendurako laguntza-sistema bat aztertzea, partida-egunetan Bilbo Handiko urruneko eremuetatik etortzen diren bazkideentzat.
- Bazkidearen defentsarako figurak –“Bazkidearen defendatzailea” edo “Bazkidearen ordezkaria”... esan izan zaio orain arte– izango lituzkeen funtzioak eta zereginak aztertzea.

#### INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

- Tresna berriak martxan jartzea dagoeneko hasita dagoen eraldaketa-prozesu digitalean:
  - OTT (Over The Top) ezartzea –Smart TV esaten zaio–; hau da, Internet bidez gure telebista adimendunera (TB modelo guztietan) iristen den bideo-zerbitzu mota. Norberaren edukien monetizazioa.
  - App ofiziala berritzea eta San Mameseko edaritegiko Appa berritzea.
  - Klubeko aldizkaria digitalizatzeko arian-arian egin beharreko urratsak.
- Berezko irrati-emisora bat sortzearen (Athletic Club Irratia) bideragarritasuna aztertzea.
- Streaming bidez emandako partiden eta taldeen kopurua handitzea, emakumeen lehen taldearenak eta Bilbao Athleticenak, batez ere.
- Bazkideekin harremanak izateko gaur egungo tresnen (sms, Whatsapp, Telegram eta beste sare sozialak) erabilera optimizatzea eta harreman pertsonalagoetara bideratzea.
- “Bazkideok” atala (garai bateko “Bazkideen txokoa”) erabat berritzea, webgune ofizialean zerbitzu hobea eta osoagoa eskaini dezan.
- Klubaren komunikabideak (Athletic TB, webgune ofiziala, Instagram, Facebook, Twitter) arlo guztietan etengabe hobetzea, ikus-entzunezko edukiak ugartuz eta beste eremu geografiko batzuetara (Txina, arabiar mundua...) iristeko profilak irekiz.
- Erakundearen esparru guztien historiari buruzko eduki monografikoen sorrera indartzea.
- Futbolari buruzko foro bat urtero antolatzea, Athletic Cluben eta haren filosofia bereziaren ikuspegitik; One Club Man/Woman ospatzen den unean edo haren inguruan egingo litzateke San Mamesen.
- Berezko tipografia sortzea euskaraz eta gaztelaniaz, euskarri guztietan erabil dadin.
- Gure emakumeen futbolarekin lotutako komunikazioa:
  - Komunikazio-sailera bideratutako baliabideak indartzea, lehen taldea profesionalizatzeko egiten diren urratsekin batera.
  - Emakumeen lehen taldeko jokalarien kanpo-komunikazioa areagotzea.
  - Arreta komunikatiboa jartzea gure emakumeen futboleko beheragoko kategorien egituran.
- Lezamarekin lotutako komunikazioa:
  - Komunikazio-sailak Lezamari soilik bideratutako komunikazioa garatzeko erabiltzen dituen baliabideak indartzea, bi bidetatik:

- Beheragoko kategorietan eta prestakuntzan arreta jartzea (sare sozialak, praktika komunikatiboak, familiaratik eta familiarekin komunikatzea, etab.)
- Lezaman egiten diren jardueri buruzko informazio- eta dibulgazio- edukiak sortzea, bai kanpo-komunikaziorako, bai barne-komunikaziorako. Honako hauek dira egin daitezkeen komunikazioen adibide batzuk:
  - a) Gizarte- eta hezkuntza-erakundeen eta beste batzuen bisitak eta jarduerak.
  - b) Beste klub eta kirol-erakunde batzuek Lezamara egiten dituzten bisitak (lehiaketa, informazio-eskaerak eta -trukeak).
  - c) Athleticeko beheragoko kategorietako taldeek Lezamatik kanpo egin ditzaketen jarduerak, eragin komunikatiboa izan badezakete –ospe handiko torneoak, etab.–.
  - d) Liga Genuine-n parte hartzen duen Athletic Fundazioa taldeari buruzko komunikazioa.
  - e) ...

#### **INFORMAZIOA, KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANA LAGUNARTEEKIN, BETERANOEN ELKARTEAREKIN ETA INGURUNE HURBILEKO BESTE ERAGILE BATZUEKIN**

##### **LAGUNARTEAK**

- Lagunarte ofizialekin harremanak izateko garapen telematikoari eustea, sarrera-salmentaren atalera zuzenean sartzeko sistema baten bidez sarrera-eskaerak modernizatzeko eta arintzeko, bai eta komunikazio-bideak, lagunarteen jardueren ikusgarritasuna eta beste batzuk modernizatzeko eta arintzeko ere.
- Lagunarteetako kideen identifikazioan aurrera egitea, zenbait onura lor ditzaten, hala nola Athleticen museorako sarrera, promozioak eta beherapenak, etab.
- Klubak lagunarteei eskaintzen dien babesa eguneratzea, Lagunarteen Nazioarteko Federazioaren Koordinakundeko ordezkarien kolektiboarekin egindako gogoeta-prozesu baten bidez.
- San Mamesen klubeko lagunarteei ematen zaien espazioa egokitzea.
- Ekintza zehatzen bidez (Ohorezko Palkoan egotea, ospakizunak, inaugurazioak eta urteurrenak, elkartze informalak, etab.), honako hauek balioan jartzea: pertsona bazkideak oro har, bazkide 50 eta 75 urte egiten dituztenak, Athletic Clubeko Beteranoen Elkarte eta lagunarteen kolektiboa.

##### **ATHLETIC CLUBEKO BETERANOEN ELKARTEA**

- Beteranoen Elkartearekin sinatutako hitzarmenaren jarduera-esparrua sendotzea.
- Ekintza zehatzen bidez (Ohorezko Palkoan egotea, ospakizunak, inaugurazioak eta urteurrenak, elkartze informalak, etab.), honako hauek balioan jartzea: pertsona bazkideak oro har, bazkide 50 eta 75 urte egiten dituztenak, Athletic Clubeko Beteranoen Elkarte eta lagunarteen kolektiboa.

##### **INGURUNeko BESTE ERAKUNDE BATZUK**

- Gure inguruneko administrazio publikoekin hurbiltasuna eta sinergiak mantentzea, bai eta esparru guztietako entitate sozialekin ere, Athletic Club aliatutzat hartzen baitute beren helburuak lortzeko.

##### **PROPOSATZEN DITUGUN LAN-ARLOAK: GARDENTASUNA ETA GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA**

- Klubaren gardentasun-sistema eta compliance-sistema (zigor-arriskuak saihesteko politika) eguneratzea eta hobetzea. Gaur egun LaLigak ezarritako eta onetsitako sistema bat du klubak; hura modernizatzea eta hobetzea proposatzen da, UNE 19601 arau berriaren arabera.
- Athletic Clubi aplikatu dakizkiokeen gardentasun-estandarrak etengabe hobetzea.
- Hirugarrenekin egin beharreko erosketa- eta kontratazio-prozesuak eta administrazio publikoekiko harremanak eguneratzea. Gizarte-klausulak sartzeko kontratazioan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta genero-ikuspegirako plan bat formalki zehaztea, zeharkako izaera izango duena klubeko kudeaketa-eremu guztietan.



## XXI. mendeko estatutuak

Athletic Clubeko eguneroko jardunak erakusten digu gure estatutuak iraganeko garai batean sustraituta daudela. Idatzi zirenean imajinatu ere ezin ziren zenbait egoerari aurre egin behar izatea nahikoa arrazoi da estatutu horiek aldatzeko.

**Klubak garai hauetara eta garai honetako errealitatera moldatutako estatutuak behar ditu;** hau da, XXI. mendeko estatutu sozialak. Aurretik zenbait alferrikako ahalegin egin dira estatutuok berritzeko, eta ahalegin horiek ikasteko eta akatsak ez errepikatzeko balio behar digute. Bazkide guztiok egin behar dugu gogoeta estatutuen oinarritzko elementuei buruz eta,aldi berean, baliagarri izan daitezen ahalegindu eta bazkideekiko harreman zuzenagoa eta gardenagoa diseinatu. Honako hau da gure asmoa: **bazkideen arteko adostasuna bilatzea eta berrikuntza-mekanismoak martxan jartzea.**

## ESTATUTU SOZIALAK

Estatutuak aldatu beharra dago. Athleticen bizitza arautzen duen testuak urte gehiegi ditu, eta talka egiten du gaur egungo eskakizunekin. Gure Estatutuak idatzi zituztenek ezin zuten imajinatu, adibidez, teknologia berriek hainbesteko eragina izango zutenik. Badakigu lan zaila dela, beste batzuk lehen ere saiatu eta porrot egin baitute, baina ez dugu amore ematen.

Batzorde bat sortzeko deia egingo dugu, idazketa berri, eguneratu eta moderno bat egin dezan, egungo premiekin bat datorrena, eta bazkidearen eta Klubaren arteko harremanak errazten dituena.

## PROPOSATUTAKO LAN-ILDOAK: KLUBAREN ESTATUTU SOZIALAK

- Estatutuak erreformatzeko prozesuari ekitea. Gogotik ahaleginduko gara oraingoak baino hobeak izan daitezen onartutako Estatutuak, ez baitigu balio Estatutuak perfektuak izateak baina ez onartzeak.
- Erreforma horretan, Klubari Laguntzeko Eguna kentzea proposatuko dugu.
- Kirol Legea alda dadin sustatzea, etorkizunean errazagoa izan dadin hautagaiak aurkeztea, eta Zuzendaritza Batzorde berriak erabili ahal izan ditzan aurreko Zuzendaritza Batzordeek sortutako superabirik. Gaur egun ezinezkoa da: KSAetan ez eta klubetan bakarrik gertatzen da, diskriminatzailea da, eta LaLigak kontrol ekonomikorako dituen mekanismoak errepikatzea dakar. Bazkideek erabakitako mugak eta bermeak soilik arautzea bilatuko dugu.

## Animazioa, zintzilik dagoen eztabaida (kolektiboa)

Taldea babestea lan kolektiboa da eta eztabaida kolektiboa eskatzen du. Sentimenduak ez ezik, indarra ere sortzen da San Mamesen.

Neurriak hartu nahi ditugu epe laburrean, Katedraleko giro mistikoa berreskuratzeko.

Aldi berean, barne-eztabaidarako foro bat antolatzea proposatzen dugu, agente guztiok parte hartzen dutelarik, ikuspegi guztietatik aztertu ahal izateko zertan den San Mamesko animazioa.

Horren ostean, ondorioekin txosten bat egin eta proposamen zehatz bat aurkeztuko zaio Ohiko Batzar Nagusiari, bazkide konpromisarioek onar dezaten.

Horrekin batera, San Mamesera joateagatik jasotako hobariak handitzearen alde gaude.

## ANIMAZIOA

Taldeak San Mamesen arnasa behar du, eta lanean ari gara baldintzarik onenak sortu eta Katedraleko orroa entzun dadin norgehiagoka guztietan. Zale guztien ardura da taldea animatzea. San Mamesek bere nortasuna erakutsi behar du. Gure ustez, animazioaren lehen urratsa zelaia betetzea da, eta hori lortzeko bideak ipiniko ditugu. Elkartu egingo gara agente guztiekin, ICHHrekin eta zeresana duten bazkide guztiekin. Denek dituzte errespetatu beharreko eskubideak, baina ziur gaude Athleticentzat ona den soluzio batera helduko garela.

Epe bat jarri dugu horretarako: hurrengo Konpromisario Batzarra.

## PROPOSATUTAKO LAN-ILDOAK: ANIMAZIOA

Animazioa, eztabaida eta onarpen kolektiboa

Taldea babestea lan kolektiboa da eta **eztabaida kolektiboa eta diziplinartekoa** eskatzen du.

Katedraleko **giroa berreskuratzeko neurriak** hartu nahi ditugu, eta bazkideek onartzea, San Mamesera doan inori kalterik eragin gabe.

1. Eztabaida-foro bat antolatzea eragile guztiekin: "Animazioa, guztiona eta guztiontzat". Helburua: ikuspegi guztietatik aztertzea San Mamesko animazioa zertan den.

Azterketaren ardatz nagusiak:

- Animazioaren historia:
  - egungo zelaian.
  - lehengo zelaian.

- **San Mamesko egungo animazioaren eta egoeraren** testuingurua:
    - Futbol “modernoa”, egungo segurtasun-arautegiak, hustuketa, materialak, afizioak bereiztea, tresnen erabilera, teknologia, etab.
    - Zelaia oro har aztertzea, barru eta kanpo, animazioari dagokionez. Dauden guneak eta kokapenak.
    - Balantzea egitea: animazioaren arloan orain arte hartutako neurrien balantzea, eta zale-kolektiboetako arduradun diren bazkideen eta Klubaren arteko harremana.
  - Desplazamenduetako animazioa. Problematika eta egoera zehatza.
  - Klubean animazio-arduradun bat sortzearen aukera. Zeregin eta baliabide hauek izango lituzke:
    - Peñen eta kolektiboen animazioa koordinatzea, Animazio Batzordea dinamizatzea (hamabostean behingo bilerak).
    - Klubak animazioari eskainitako aurrekontua.
    - Etxetik kanpoko zaleekin lotura zuzena bidaia guztietan (Liga, Kopa eta Europa). Bazkideei laguntzea edozein arazoren aurrean.
  - Animaziorako harmaila berezi bat sortzea. Nola? Non?
    - Kokapen posibleak aztertzea, alde onak eta txarrak (sarbideak, segurtasuna, joan-etorriak, etab.)
    - Hautatutako sektorean agian safe standing onartzea/ezartzea–aforo handiagoa emango luke–.
    - Dauden plazak aztertzea.
    - Masa kritikoa ikertzea (zenbat zale leudekeen harmailan, eta kokapenaren eta tipologiaren gaineko eragina).
    - Bazkideen gaineko eragin posibleak.
    - Pizgarri edo ordain posibleak: kokatzea/birkokatzea, kuota malguak, baldintza diskriminatzaileak eza beste harmailekiko, etab.
    - Abonua aztertzea, animazio-harmailaz kanpora.
2. Ondorioekin txosten bat egitea eta proposamen zehatz bat aurkeztea 2019ko Ohiko Batzar Nagusiari, bazkide konpromisarioek onar dezaten, eta martxan jar dadin 2020ko urtarrilean (aldaketak egon baitaitezke kuotetan). Batzordeak beste epe batzuk ezar ditzake.

## Euskaraldia eguneroko

Bai Euskarari elkartearekin sinatutako akordioen bidean eta Euskaraldia ekimenaren ildoan, **Athleticek areagotu egin behar du bere eguneroko konpromisoa euskararekin, barruan eta kanpoan komunikatzeko tresna bizi moduan**. Gure Klubak eskura dauzkan bitarteko guztiak erabiliko ditu euskarak presentzia normala izan dezan eguneroko funtzionamenduan, eta hizkuntzarekin lotutako erakundeen eskutik joango da ekimen guztietan.

## EUSKARA

Bere garaian Bai Euskarari elkartearekin bideari ekin zizaionean eta azken egunotan Euskaraldiarekin bat eginez, urrats sendoak eta praktikoak egin ditu Athleticek azken urteotan euskararen alde, baina ez dira nahikoak. **Athletic Clubek biziagotu behar du, are gehiago, bere eguneroko jardueran euskararekiko duen konpromisoa, barne eta kanpoko komunikazio-tresna moduan**. Gure Klubak eskura dituen baliabideak ipiniko ditu euskararen presentzia normalizatua bermatzeko, eta gure hizkuntzarekiko lotura duten erakundeen eskutik horren alde burutuko diren ekimenetan presente egongo da.

## PROPOSATUTAKO LAN-ILDOAK: EUSKARA

Euskararaldiaren helburuarekin bat egiten dugu, hau da, euskaraz bizitzeko urratsak eman nahi ditugu. Urrats gehiago. Belarri prest+Ahobizi, elkarrekin kluba euskaldunduz.

Klubaren egiturak:

- Euskara ezinbestekoa izango da publikoarekin harreman zuzena duten kontratazioetan.
- Gure egoitza ofizial guztietan euskaldunei arreta bermatu behar zaie. Ahobizi sinboloa “gure” egiten dugu, euskaraz arreta emango dugula adierazteko.
- Barne komunikazio idatzia ele bietan izango da, gutxienez. Euskaraz burutzen diren bileren kopurua handitzea.
- Klubeko formulario eta inprimaki guztiak ele bietan izango dira, “Bai Euskarari” elkartearen urteko ebaluazioren eskutik.
- Epe ertainera, euskararen plan estrategikoa egitea Athleticen.

Kanpora begira:

- Euskarari agerraldi publiko guztietan lehentasuna ematen jarraituko dugu, ahal dela.
- Seinaleak ia erabat ele bietan dira Klubean. Seinale guztiak ele bietan izatea. Seinale edo kartel berri guztietan euskararekiko diskriminazio positiboa.
- Tipografia korporatibo berezia sortzea, euskara eta gaztelania ezberdinduz.

Gaur egungo gure hautagaiztan zortzi bazkide euskaldun ditugu. Tresnak ipini beharko dira, presidentearengandik hasita, Belarriprestetik Ahobizi arteko bide kolektiboa egiteko. Lehen hitza euskaraz beti.

### Fundazioa, bide soziala eta kulturala

Gure Klubak gizartearekin duen inplikazioaren erreferentia da Athletic Fundazioa. Athleticek Bizkaiko gizarteari itzuli behar dio hark Klubari ematen diona. Horregatik, **ezinbestekoa da Fundazioak parte handiagoa izatea irabazi asmorik gabeko proiektu sozialetan eta kulturetan**, eta gizarteari bere presentziaren berri ematea, sinergiak sortzeko eta errealitateak ezagutarazteko.

Berariazko kanpainak egin behar dira gero eta jende gehiagok parte har dezan balioak zabaltzen, bai eta Athleticen dimentsio historikoa ezagutzera eman ere.

### ATHLETIC FUNDAZIOA

Athletic Fundazioa gure Klubeko zati bereizezina bihurtu da. Bere lan sozialari esker, erreferente gara elkartzunean. Fundazioak gizarteari itzultzen dio hark Athletici ematen dionaren zati bat. Egoera ahulean dauden eta laguntza behar duten pertsonen alboan egon behar dugu. Kirolaren balioen artean daude elkartzasuna eta talde-lana. Ezin ahaztu alderdi kulturalak eta gure nortasuna ere. Gure Fundazioak egin duen on guztia indartu nahi dugu eta, ahal bada, hobetu.

### PROPOSATUTAKO LAN-ILDOAK: ATHLETIC FUNDAZIOA

Athletic Fundazioaren proiektu soziala eta kulturala sendotzea. Fundazioaren proposamen estrategiko bat egitea. (2019-2022).

- Ahalik eta inpaktu sozialik handiena bultzatzea; hau da, bistan jartzea eta azpimarratzea hainbat arazo, batik bat eskubide-urraketak, eta baztertuta edo egoera ahulean dagoen jendea. Ea epe laburreko nahiz ertaineko zer eraldaketa, onura, lezio eta abar sortu den orain arteko jardueretatik, eta ea bete diren agenteen itxaropenak.
- Proiektuak egokitzea eta proiektu berriak definitzea, premia sozialen arabera.

- ATHLETIC CLUB.
  - Fundazioaren jarraitzaileak ugaritzea.
  - Athletic Club Fundazioko jarraitzaile berriak lortzeko eta fidelizatzeko plana.
  - Bazkideenganako arreta hobetzea, lehendik dauden jarduerak indartuz eta berriak programatuz.
- KOMUNIKAZIOA. Komunikazio Plana berrikustea eta dimentsio berrira egokitzea. Inpaktu eta aitortpen sozial handiagoa bilatzea.
- BOLUNTARIOTZA. Barruko zein kanpoko boluntariotza sustatzen jarraitzea.

### Kluba munduari zabalik. Zuri-gorriak munduan zehar

**Arreta berezia eskaini behar zaie munduan zehar bizi diren athletic zaleei.** Urruntasunak ez du oztopo izan behar edozein athletic zale gure historiaren, gure lorpenen eta gure erronken parte senti dadin. Boisen hasitako esperientziak, adibidez, erreferentzia izan behar du Athleticek munduan duen presentzia nabarmentzeko.

### Athletic Club marka.

Gure markaren historiak ez du berdinek munduan; nonahi kontatu eta ezagutarazi behar da. **Athletic marka hedatu behar da nazioartean**, elkarlanean jardunez hemengo nahiz atzerriko agente pribatu eta instituzionalekin.

Gure kirol-filosofia da gure sarrera-giltza. **Gure Kluba eta gure marka ezagunak izan behar dira ez jokariengatik, baizik eta lehiatzeko moduarengatik.**

Gure **modelo bakarra** da lehiatzeko orduan eta gure jokariak prestatzeko orduan; erakusteko eta esportatzeko modelo bat da.

### ESTADIOA: MARKETINA, ARLO KOMERTZIALA ETA USTIAPENA

Futbola industria bat da eta gero eta eremu zabalagoetara iristen da. Bazkide-kuotetatik eta leihatiletatik kanpoko diru-sarrerak aspalditik dira arruntak, eta ohiko bideak dira Klubeko finantzak indartzeko. Telebista-eskubideen eta bazkide-kuoten atzetik, VIP Eratzuna da

hirugarren sarrera-iturria. Astean zehar gune horretan izaten diren ekitaldiak munduko estadiorik modernoenen bidetik doaz. Baina ez hori bakarrik: denda ofizialak eta museoa ere, diru-iturri izateaz gain, Athleticen irudia proiektatzen diote bisitan datorkigun jende guztiari.

## **PROPOSATUTAKO LAN-ILDOAK: ESTADIOAREN MARKETINA, ARLO KOMERTZIALA ETA USTIAPENA**

- Negozio Zuzendaritza bateratzea: estadioaren ustiapena (Museoa, ekitaldiak, ticketak), SMVA, marketina eta arlo komertziala. Arlo bakoitzaren sinergiak aprobetxatzea.
- San Mamesen bertan zentralizatzea arlo horiei laguntzeko bulegoak.
- SMVA
  - San Mamesko negozio-sorrerak duen hazkunde-marjina aprobetxatzea.
  - Abonuak % 10 haztea urtero.
  - Palkoak % 100 betetzen jarraitzea.
  - Bazkide, enpresa eta VIPentzako zerbitzuen eskaintza handitzea:
    - Harmailetakoa eta/edo zelaiko jarduerak udan.
    - Behe-solairuko bulebarreko ekitaldiak.
  - CRM eta marketin digitala: bezeroa eta haren premiak hobeto ezagutzea, datu-baseak aztertuz, Business Intelligence estrategiak landuz, eta ekintza-plan zehatzak eginez.
- Nazioartera zabaltzeko estrategia.
  - Nazioarteko partnerrekiko akordioak.
  - Kongresuak egitea: Soccerex, Eurolatam, Leaders.
  - Presentzia izatea BILBAO BIZKAIA ACTION GROUP, Bilbao Convention Bureau, eta abarretan.
- Arlo komertziala:
  - Merchandising bide berriak eta produktua garatzea.
  - Salmenta globala, mundu osoa merkatutzat hartuta, teknologia berrien bitartez.
  - Salmenta gurutzatua optimizatzea Klubaren beste negozio-lerro batzuen bidez: SMVA, sare sozialak, Smart TV propioa, etab. Joan-etorria eta salmentak sortzea.
  - Erreferentia den gune/denda bat eskaintzea erdigunean, egungo dendak hobetzea eta gune berriak bultzatzea; adibidez, Loiuko aireportuan ipintzea bideragarria den aztertzea.
  - Pizgarri-sistema bat garatzea: puntuak, fidelizazio-txartela, deskontu-sistema bat AC produktuentzat (sarrerak, arlo komertziala, museoa, etab.)
- Marketina/babesletzak:
  - Babesletza-eredu berriak hartzea. Babesletza klasikotik babestutako edukira igarotzea.
  - Babesletza-akordioak eta marketin-jarduerak nazioartera zabaltzea.

- Museoa:
  - Bazkideek Museoa bisita dezaten bultzatzea, ekintza zehatzen bidez.
  - Aldi baterako erakusketak sustatzea. Joan-etorria sortzea.
  - Museoaren bisitaldia sartzeko turismo-zirkuituetan, itsas bidaiariei eskaintzea, etab.
- TICKETAK:
  - Denboraldi osoko sarrerak online saltzeko plataforma, erosketara eroso, azkar eta intuitibo baten bidez.
  - Bazkideei erraztea txartel-aktibazioak, lagapenak, zozketetan parte hartzea, etab.
  - Sarrerak saltzeko negozio-plan bat egitea: eserleku erabilgarrien datuak aztertzea, eskariak, salmenta-joerak, bigarren mailako merkatua, LaLiga ticketing strategy, etab.
- EKITALDIAK
  - Etengabe egitea enpresa-batzarrak, konferentziak eta kongresuak, galak, sari-banaketak, urtemugen ospakizunak, aurkezpen komertzialak, azokak eta show roomak.
  - Ekitaldi handiak kudeatzeko orduan bertan egotea eta laguntzea.
  - Estadioaren aurreko zabalgunea aprobetxatzea gai baten inguruko jardueretarako.
- AMBIGUAK
  - Negozio-ereduaren aldaketari jarraipena eta ebaluazioa egitea, egokitze eta etengabe hobetzeko.

## **Azpiegituren arloa**

### **AZPIEGITUREN ARLOA**

Oso klub gutxi dute guk bezalako ondarea. Altxor kutunak ditugu Ibaigane –egoitza paregabea–, San Mames estreinatu (eta ordaindu) berria, eta gure bihotza –Lezama–, birmoldatua eta zabaldua inbertsio handi baten ostean. Gure azpiegitura guztiak ezin hobeto mantentzea dugu helburu, egungo behar teknologikoak asetzeko prest, eta behar bezalako zerbitzua eman ahal izateko futbolari, entrenatzaile, bazkide eta zaleei, bai eta bertan lan egin behar dutenei ere, hala nola telebistei, hedabideei eta gainerako erabiltzaileei.

## PROPOSATUTAKO LAN ILDOAK: AZPIEGITURAK

### SAN MAMES

- Estadioko hainbat gune gaitzea eta/edo birmoldatzea.
  - Bulego korporatiboak San Mamesko denda zaharrear.
- Hobeto ikuskatzea eta kontrolatzea estadioko segurtasuna eta kontrako zaleak.

### LEZAMA

- Lezamako Gida Plana zabaltzea (Lezama udalerriko Hirigintza Plan Nagusiari buruz hartzen den ebazpenaren arabera):
  - Soropil hibridoko bi zelai berri egitea.
  - Euri-ura hartzeko eta ureztatzeko depositua eraikitzea, bai eta ibaiko ura hartzeko sistema ere, ureztapen-gastuak murrizteko, instalazioaren jasangarritasuna hobetzeko, eta udalerriko ur-hornidurari ahalik eta gutxien eragiteko.
  - Instalazioak bisitatzen dituzten umeentzako parkeak eta jolastokiak handitzea.
  - Gizonezkoen lehen taldearentzako eraikina egitea.
  - Eraikin nagusia osorik gaitzea, bai eta bulegoak ere, eta kiroldegia, gimnasioa eta emakumeen lehen taldearen gunea birmoldatzea.
  - Instalazioetan prestatzen ari diren gazteentzako erresidentzia bat eraikitzea.
  - 2. zelaiko estalkia modernizatzea.
  - 6. zelaiaren azpiko aparkaleku berria.
  - 6. zelaia berritzea.

### IBAIGANE

- Jauregiaren birgaitze integrala, Klubaren egoitza korporatiboa eta bulego nagusiak bertan mantendu ahal izateko, bere balio historikoari eutsiz.

### ENERGIA AURREZTEA ETA JASANGARRITASUNA

- Soropila zaintzeko LED lanparak ipintzea San Mamesen, eta orga berriak Lezaman.
- LED argiztapenak bi helburu ditu:
  - Energia aurreztea.
  - Bateragarri izatea video mapping, bideomarkagailu eta telebistako U-rekin, animazio-ikuskizunak egin ahal izateko partidaren aurretik eta ostean
- GARBIKER eta IHOBE
  - San Mames eta Lezamako instalazioetan sortutako hondakinak hobeto batzea eta kentzea, eta ingurumenaz kontzientziatzeko kanpainetan laguntzea.
  - Geure ekimenak antolatzea Erronka Garbia markaren barruan. Ihoberen ekimena.



Zalantzarik bai? Deituiguzu!

¿Tienes alguna pregunta? ¡Llámanos!

**688 726 553**

Colón de Larreategui 21, 48009 Bilbao  
athletic@gogorenindarra.eus  
gogorenindarra.eus

